

## I. XEDAPEN OROKORRAK

### ESTATUKO BURUZAGITZA

**438** *Hutsen zuzenketa, honako honena: 48/2015 Legea, urriaren 29koa, 2016rako Estatuko Aurrekontu Orokorrena.*

Hutsak aurkitu dira 2016rako Estatuko Aurrekontu Orokorren urriaren 29ko 48/2015 Legean. Lege hori Estatuko Aldizkari Ofizialaren 260. zenbakian argitaratu zen, 2015eko urriaren 30ean, eta honen bidez honako zuzenketa hauek egiten ditugu:

25. orrialdean, 20.Bat.1 artikuluan, lehenengo lerrokadaren bosgarren eta seigarren lerroetan, honako hau dioen lekuan: «...lege honen hamahirugarren, hamalagarren eta hamabosgarren xedapen gehigarrietan ezarritakoaren mende egongo dira...» honakoa esan behar du: «...lege honen hamabosgarren, hamaseigarren eta hamazazpigarren xedapen gehigarrietan ezarritakoaren mende egongo dira...».

54. orrialdean, 38.Bat artikuluan, honako hau dioen lekuan: «...Gerra zibilean edo gerra zibilaren ondorioz hildako espainiarren alargunen eta gainerako senideen alde pentsioak, laguntza mediko-farmazeutikoa eta gizarte-laguntza aitortzeari buruzko Legearen (irailaren 18ko 5/1979) babesean gerra zibilean edo gerra zibilaren ondorioz hildako espainiarren senideen alde aitortutako pentsioen zenbatekoa ezin izango da...» honakoa esan behar du: «...Gerra zibilean edo gerra zibilaren ondorioz hildako espainiarren alargunen, seme-alaben eta gainerako senideen alde pentsioak, laguntza mediko-farmazeutikoa eta gizarte-laguntza aitortzeari buruzko Legearen (irailaren 18ko 5/1979) babesean gerra zibilean edo gerra zibilaren ondorioz hildako espainiarren senideen alde aitortutako pentsioen zenbatekoa ezin izango da...».

166. orrialdean, berrogeita zortzigarren xedapen gehigarriaren Bat ataleko hamahirugarren zenbakian, hau dioen lekuan: «...Espainiako Liburutegi Nazionala Arautzen duen Legean (martxoaren 24ko 1/2005)...» honakoa esan behar du: «...Espainiako Liburutegi Nazionala Arautzen duen Legean (martxoaren 24ko 1/2015)...».

196. orrialdean, azken xedapenetatik hamalagarrenaren azken lerroan, hau dioen lekuan: «Artikuluaren gainerako zatia bere horretan idatzita geratzen da.» honakoa esan behar du: «Xedapenaren gainerako zatia bere horretan idatzita geratzen da.».

221. orrialdean, V. eranskinaren amaieran, bi ohar hauek txertatu behar dira:

«<sup>1</sup> Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailako irakasleei dagokienez, ikastetxe publikoetan maila horietako irakasleentzat ezarritako zenbateko berbera ordainduko zaie 2016an.

<sup>2</sup> Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailan irakasle diren lizentziadunei modulu hau aplikatuko zaie.»

224. orrialdean, A Coruñako Portu-agintaritzaren hobarien taulan, «PRODUKTU EOLIKOAK. Haize-sorgailuak. Makineria eta piezak» atalari dagokion muga-zergen zutabearen hau dioen lekuan: «7308B, 8501B, 8502, 8503», honakoa esan behar du: «7308B, 8501B, 8502, 8503 eta 8412.».

226. orrialdean, Almeriako Portu-agintaritzaren hobarien taulan, «Burdinazko produktu ijestu planoak» atalari dagokion muga-zergen zutabearen hau dioen lekuan: «7208A, 7208B, 7209A, 7209B, 7210, 7211, eta», honakoa esan behar du: «7208A, 7208B, 7209A, 7209B, 7210, 7211 eta 7212.».

238. orrialdean, Bartzelonako Portu-agintaritzaren «1.1. TAULA. ITSASONTZIEN ZIRKULAZIOA. ITSASONTZIAREN TASAREN HOBARIA» taulan, «GT (4) ≥ 38.000» zutabearen, aurreko urteko zirkulazio-kuota % 7,0 eta % 20,0 artekoa den kasuetarako, hau dioen lekuan: «% 15», honakoa esan behar du: «% 5».

260. orrialdean, Málaga-ko Portu-agintaritzaren hobarien taulan, «ZEREALAK, PENTSUAK eta HAZIAK. Soltean.» atalari dagokion muga-zergen zutabeen hau dioen lekuan: «1101 a 1109; 1201, 1206, 1207, 1208, 1212, 1213 eta», honakoa esan behar du: «1001etik 1008ra; 1101etik 1109ra; 1201, 1206, 1207, 1208, 1212, 1213 eta 1214».

271. orrialdean, Santa Cruz Tenerifeko Portu-agintaritzaren hobarien taulan, «ITSAS ZIRKULAZIO ETA ZERBITZU BEREZIAK, LEHENTASUNEZKOAK EDO ESTRATEGIKOAK» atalari zutabeen hau dioen lekuan:

<b>«ITSAS ZIRKULAZIO ETA ZERBITZU BEREZIAK, LEHENTASUNEZKOAK EDO ESTRATEGIKOAK</b>
GURUTZONTZI TURISTIKOAK
FRUTAK ETA BARAZKIAK ONTZIRATZEA. BOTILARATUTAKO ARDOA ONTZIRATZEA ARRAIN IZOZTUAK iraganbide- edo ontziratze-erregimenean
HORNIDURA
ERREGAI HORNIKETA bidez
ERREGAI HORNIKETA bidez
KONPONTZEN ARI DIREN ITSASONTZIAK ETA INAKTIBO DAUDEN ITSASONTZIAK, ARRANTZA ONTZIAK ETA TRESNA FLOTATZAILEAK BARNE
KABLE ONTZIAK
LN ONTZIRATZEA/LEHORRERATZEA
ZEMENTUA ONTZIRATZEA»

Hau esan behar du:

<b>«ITSAS ZIRKULAZIO ETA ZERBITZU BEREZIAK, LEHENTASUNEZKOAK EDO ESTRATEGIKOAK</b>
GURUTZONTZI TURISTIKOAK
FRUTAK ETA BARAZKIAK ONTZIRATZEA. BOTILARATUTAKO ARDOA ONTZIRATZEA ARRAIN IZOZTUAK iraganbide- edo ontziratze-erregimenean
HORNIDURA
ERREGAI HORNIKETA, gabarra bidez
ERREGAI HORNIKETA, hodi bidez
KONPONTZEN ARI DIREN ITSASONTZIAK ETA INAKTIBO DAUDEN ITSASONTZIAK, ARRANTZA ONTZIAK ETA TRESNA FLOTATZAILEAK BARNE
KABLE ONTZIAK
L N G O N T Z I R A T Z E A / LEHORRERATZEA
ZEMENTUA ONTZIRATZEA»

279. orrialdean, Almeriako Portu-agintaritzaren hobarien taulan, «Burdinazko produktu ijestu planoak» atalari dagokion muga-zergen zutabearen hau dioen lekuan: RO-RO zirkulazioko itsas zerbitzua (ROPAX motako itsas zerbitzuak izan ezik) «50.000 eta 60.000 unitate artean...», honakoa esan behar du: «50.000 eta 60.000 unitate artean...».